

2017-2018 PRESTAKUNTZA PLANA

PRESTAKUNTZA JARDUERARAKO DEIALDIA

Izenburua:

ONGI HITZ EGITEKO LANTEGIAK: ahozko adierazpena lantzeko ikastaroa irakasleentzat.

Modalitatea:

Ikastaro mistoa: bertaratu beharrekoa – online.

Etapak:

Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergo.

Parte-hartzaileak:

Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleak.

Deitzailea:

Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua.

Eskola liburutegiaren aholkularitza.

Justifikazioa:

Zalantzarik gabe, gizakiak hizkuntzaren bidez izaten ditu harremanak eta horrek ezinbesteko garrantzia ematen dio komunikatzeko gaitasunari. Gizartean aktiboki parte hartzeko hainbat baliabide behar ditugu: ezagutzak (ahozkoak eta ez-ahozkoak), elkarreraginaren eta interpretazioaren arauak, proposatutako helburuak lortzeko estrategiak eta gainerakoak elkarrekin bizitzeko eta komunikatzeko izaki paregabe gisa aitortzea.

Irakaslanak ahozko adierazpenaren teknika eta tresna ugari erabiltzea eskatzen du, ez bakarrik ikasleek ezagutzak landu eta eskura ditzaten lortzeko, baizik eta, orobat, beste irakasle batzuekiko, gurasoekiko eta irakasleen lan esparruko zeinahi pertsona eta entitaterekiko harremanak eraginkorrak izan daitezten lortzeko.

Helburuak:

- Erretorikaren eta oratoriaren gako eta baliabideen oinarriak ikastea, ikasgelan eta ahozko adierazpen formala erabiltzea eskatzen duten bestelako guneetan aplikatzeko.
- Konbentzitzea zer den mugatzea eta konbentzitzearen eta manipulatzearen arteko funtsezko aldeak ezagutzea.
- Hitzaldiak lantzen eta prestatzen ikastea, erretorikaren sistema eta tresnak erabiliz.
- Oratorian esku hartzen duten emozioak ezagutu eta aztertzea.
- XXI. mendeko marketinaren tresna berrietara hurbiltzea eta irakaslearen diskurtsoan errentagarri bihurtzea.

Edukiak:

- Erretorikaren esparru eta genero tradizionalak eta modernoak: ibilbide laburra historian zehar.
- Erretorika eta hezkuntza.
- Oinarrizko premisak eta kalitatearen irizpideak erretorikaren komunikazioan.
- Diskurtsoa: atalak eta motak.
- Emozioak oratorian: norbere emozioak, jendaurrean hitz egiteko beldurra, gainerakoen emozioak eta enpatia ezagutu eta kontrolatzea.
- Prosodia eta proxemia
- Tresna berriak eta erretorika zaharra: storytellinga, pechacucha, etab.

Metodologia:

Mistoa: bertaratu beharrekoa eta online. Bi orduko zazpi saio teoriko-praktiko, banakako praktikak, eta bateratzeak moodle bidez.

Hizlaria:

Mercedes Corretgé. Kazetaria eta prestatzailea ahozko komunikazioan.

Arduraduna:

Javier García Ariza.

Aholkularia - Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzua.

848 42 60 59

fj.garcia.ariza@navarra.es

Tokia: Iruñeko ILZ (Basoko BHIIn).

Datak: Urtarrilaren 17an, 24an, 31ean eta otsailaren 7an, 21ean eta 28an.

Ordutegia:

Urtarrilaren 17an eta otsailaren 7an: 17:30etik 19:30era.

Urtarrilaren 24an, 31ean eta otsailaren 21ean eta 28an: 17:30etik 20:00era.

Iraupena: 25 ordu: 14 ordu aurrez aurre eta 11 lanordu online PNTEren ikasgela birtualeko Moodle plataformaren bidez.

Plaza kopurua: 25.

Parte-hartzaileen gutxieneko kopurua: 10.

Izena emateko epea: Izena emateko azken eguna 2018ko urtarrilaren 10a izanen da, honako helbidean:

<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/inscripciones-3/>

Hautatzeko irizpideak: Gehienez ere 25 onartuko dira, izena emateko ordenaren arabera.

Hizkuntza: Gaztelania.

Oharrak:

- Aurrerantzean prestakuntza ikastaroekin zerikusia duten abisu eta jakinarazpen guztiak Hezkuntzako Sare Publikoko irakasleek duten PNTE kontu ofizialera bidaliko dira (erabiltzailea@educacion.navarra.es). Ikastetxe pribatu eta itunduetako irakasleei abisu eta jakinarazpenak Educan ezarria duten helbide elektronikora iritsiko zaizkie.
- Izena emateko epea amaituta, ahalik eta lasterren argitaratuko da jarduera honetarako onartuen zerrenda, honako web-orri honetan:
<http://formacionprofesorado.educacion.navarra.es/web/eu/onartuen-zerrenda/>
- Irakasle bat onartu badute jarduera egiteko eta ezin badu egin, deialdian agertzen den jardueraren arduradunari esan beharko dio posta elektronikoko baten bitartez, baja emateko jarduera hasi baino lehen. Bestela zehapen-prozesua abiaraziko da, eta irakaslea ezin izanen da 5 hilabetez sartu izena emateko plataforman; ondorioz, galduko du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak antolatzen dituen prestakuntza jardueretan izena emateko

aukera. Zehapen horrek ez du inor salbuetsiko ikasturtean prestakuntzako
35 ordu egiteko beharkizuna betetzetik.

- Aktiboan dauden irakasleek soilik egin dezakete prestakuntza eta haiei baino ez zaie ziurtatuko. Aldi baterako ezintasun egoeran egonez gero, ezinezkoa da prestakuntzara joatea.
- Ziurtagiria eskuratzeko saio presentzialen %85era joan beharko da eta saio bakoitzaren sinaduren orrian bolaluma ezabaezinarekin sinatu. Ez da kontuan hartuko sinatu ez den saiorik; hau da, ez da onartuko bestelako bertaratze-ziurtagiririk. Prestakuntzaren diseinuan lan praktiko bat egitea sartuta badago, bertaratzeaz gain, nahitaezkoa izanen da lanak aurkeztea ziurtagiria lortzeko.